


EHU

# Irakasle, ikertzaile eta ikasleei bideratutako politikaren webgunea

JOSU ETXEBARRIOSTE



Itxura ikusgarria du webgune berriak.

tzo zenean ikasleak zituen gogoan Paco Llerak, eta gizarteaz mintzo zenean gizarteari komunikabideen bitartekari-tzarekin eman dakioken zerbitzua dela gaineratu zuen.

Nabarmentzekoa da hauteskundeetako emaitzen atalak eskain dezakeen zerbitzua. Atal horretan aurkitu ahal izango ditu nahi duen orok 1977. urtetik hona EAEn izan diren hauteskundeetako emaitzak. Emaitza horietako boto kopuruak zenbakitan zein grafikotan ditu eskuragai erabiltzaileak. Han izango dira, bestalde, beste herrialde batzuetako emaitzak kontsultatzeko loturak ere.

## Ikastetxeak buruan

Unibertsitateko etorkizuneko ikasleak ere gogoan izan dituzte web orria diseinatzeko orduan. *Politologo* izatea atalean, esate baterako, demo grafiko eta pedagogikoa jarri dute. *Demo* horren helburua da Zientzia Politikoen ikasketak eskatzen dituen ezaugarriak eta gerora eskaintzen dituen lan aukerak adieraztea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei.

Ikasleek ikasketak aukeratzeko orduan izaten dituzten orientazio arazoei irtenbidea eman nahi diete neurri batean horren bitartez.

Astelehenetik hona EHUko errektore den Manuel Montero ere izan zen aurkezpenean. Manuel Monterok jakinarazi zuen web orrialdea erantzun bat dela. «Horrekin erantzun nahi diogu eskari eta aldi berean kexu den arazo bati: geure burua saltzen ez jakiteari».

Zientzia Politikoen web orria  
[www.ehu.es/cpvweb](http://www.ehu.es/cpvweb)

## Administrazio eta Zientzia Politikoen sailak sortu du webgune berria, eta zerbitzu publiko izatea nahi du

Inigo Olabarri • Bilbo

WEBGUNEAK jarri du martxan EHUko Administrazio eta Zientzia Politikoen sailak. Zientzia politikoak eskaintzen duen zerbitzu publiko bezala aurkeztu zuten webgunea. Hein handi batean lau arlori begira egongo den zerbitzu publikoa izango dela nabarmendu zuten Euskal Herriko Unibertsitateko kideek: komunitate zientifikoari, unibertsitateko munduari, gizarteko arlo profesionali edo gizarteari orokorrean, eta ikastetxeei.

Oraingoz gaztelaniaz baino ezin izango du erabiltzaileak izan zerbitzu publiko hori. Etorkizunean, hala ere, ingelesez eta euskaraz ere izango da; EHUko Euskararen Institutuak web orriko edukiak itzultzen dituenean, hain zuzen ere.

Sarean sartzeak dituen ondorio biek in jakatuko dute aurrerantzean Administrazio eta Zientzia Politikoen Fakultateko kideek.

«Batetik, zer ekoizten dugun eta zer garen erakutsi ahal dugu mundu globalizatu batean. Bestetik, munduak ekoizten duena erabil genezake geure onerako», azaldu zuen aurkezpenean Paco Llerak, Administrazio eta

Zientzia Politikoen saileko zuzendariak.

### Hiru munduri so

Paco Llerak web orriaren oinarrian dagoena zerbitzu publiko bat eskaintzeko

asmoa dela nabarmendu zuen bere agerpenean. «Hiru munduri begira dagoen zerbitzu publikoa izango da; hain zuzen ere, komunitate zientifikoari, unibertsitateko munduari eta gizarteari begira». Unibertsitate munduaz min-

Oraingoz gaztelaniaz baino ez da egongo webgunea, baina ingelesez eta euskaraz ere izango da etorkizunean

## Hamabi ataletan banatu dute Zientzia Politikoen webgunea

Hamabi atal ditu webguneak. Hamabi atalok iritsi nahi duten hiru munduetara egokituta daudela gaineratu zuen Paco Llerak aurkezpenean. Aurkezpenean, irakasle eta ikertzaileen berri ematen duen atala, ikasketak, doktoretza eta graduondoko ikasketen berri ematen duen atala, ikerketak, ikaslearen txokoa, berrikuntzak, politologo izatea, hauteskundeetako emaitzak, Euskobarometroa, loturak, webguneko elkarrizketak. Horiek dira hamabi atalak.

Ikaslearen txokoa, esate baterako, praktikak egiteko dituzten aukerak, beka deialdiak, ikastaroen agenda eta antzerako deialdi interesgarriak aurki ditzakete ikasleek.

Irakasle eta ikertzaileen berri ematen duen atalean, berriz, EHUko zientzia politikoen arloan diharduten irakaslearen berri ere ematen du web orriak, bakoitzaren espezialitatea eta ikerketak ekoizpenaren datuak eskainiz. Era berean, haien helbideak aurki daitezke.

Ikerketaren atalean sailean egiten den produkzioaren berri izango dute nahi duten erabiltzaile guztiak. Zientzia politikoen arloan argitaratzen diren liburu eta bestelako argitalpenak ere agertzen dira.

Berrikuntzetan, politika munduko azken berriak eta era guztiategoko deialdiak. Zerbitzu publiko garrantzitsua da hamabi atal horietan Administrazio eta Zientzia Politikoen sailak eskaintzen duena, saileko ardura-dunek azaldutakoaren arabera.